

## LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKA PROGRAMAREN OINARRIA ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA 2018

### 1. SARRERA

Leioako Udalak, Tokiko Erakundeei buruzko 2/2016 legeak 17. Artikuluan dioenarekin bat eginez, udalerrria den heinean, bere eskumenekoak diren ondokoak garatzen ditu besteak beste, gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea, tokiko ekonomia eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo politikak, osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea, gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea, Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak gazteei zuzendutako zerbitzuak eta egitasmoak sustatzeaz gain, gazteria politika integralak gauzatzeko aukera bideratzea du helburu "Gaztedi Bizkaia 2020" proiektuan jasotako konpromezuak lortzeko neurriak jorratuz.

"Gaztedi Bizkaia 2020" proiektuan 8 ekintza eremuak ezartzen dira: Hezkuntza eta prestakuntza, Enplegua eta ekintzaitza, Gizartegintza, Osasuna eta ongizatea, Kultura eta sormena, Gizartearekiko konpromisoa, Parte-hartzea, Nazioartekotzea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Barrika, Berango, Gorniz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizko Udalen artean, lankidetzeta-hitzarmena 2017-2019 aldirako sinatzen da, "Gaztedi Uribe Kosta" proiektua inplementatzearen bidez "Gaztedi Bizkaia 2020" proiektuaren esparruan gazteriar buruzko politika integrala ezarri, bultzatu eta garatzeko helburuarekin.

Izenpetutako hitzarmen horren bitartez, Udal sinatzaileak eskualdea osatzen duten udalek bideratzen dituzten jarduerak sustatzeko eta bertan parte hartzeko konpromezua hartzen dute.

Aipatutako hitzarmenean, besteak beste, 2018ko epealdirako adostutako egitarauan barneratuta eskualdeko 8 udalerrietako gazteen enplegarritasuna sustatze aldera, Leioako Udalak, Lanekoak ez diren beka programa sustatu eta garatzeko konpromezua hartzen du.

Horretarako, Leioako Udalak, Gazteria sailaren eta Behargintzaren arteko elkarlana/koordinazioaren bitartez aipatutako programa ezarriko du.

## 2. ARAUDIA

Honako oinarriak, ondoko arautegi eta xedapenek diotenek babesten ditu:

- 1915/17 zenbakidun alkatetza dekretua, 2017ko uztailaren 26koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Barrika, Berango, Gorniz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizko udalerriek izenpetutako , hitzarmenaren atxikimendua onartzen du. Hitzarmen honen bitartez, "Gaztedi Bizkaia 2020" proiektuak ezartzen duen markoaren baitan gazte politika integralak ezarri, sustatu eta garatzeko helburuarekin, "Gaztedi Uribe Kosta" proiektua abiatzen da, 2017, 2018 eta 2019 epealdirako.
- 2018ko urriaren 18ko, 2626/18 zenbakidun Alkatetza dekretua zeinak, 2018 ekitaldirako/epealdirako Lanekoak ez diren praktikak egiteko oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzen duen
- 1543/2011 Errege Dekretua, urriaren 31koa, enpresetan egiten diren eta lan-arlokoak ez diren praktikak arautzen dituena.
- 1493/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, formakuntza programetan parte hartzen dutenak Gizarte Segurantzaren Erregimen orokorrean sartzeko zehaztapenak eta baldintzak arautzen dituena.
- 694/2017 Errege Dekretua, uztailaren 3koa, zeinak 30/2015 Legea, irailaren 9koa, Enplegurako Lanbide Heziketako sistema arautzen duena, garatzen du.
- 6/2016 Errege Lege Dekretua, abenduaren 23koa, Gazte Bermearen Sistema Nazionala bultzatzeko presako neurriak arautzen dituena.
- 82/2016 dekretua, maiatzaren 31koa, Euskal Autonomi Erkidegoan Enplegurako Landide Heziketa arautzen duena.
- 38/2003 legea. Diru-laguntzen lege orokorra.
- Leioako Udaleko diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra.
- Indarrean dagoen Leioako Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa.

## 3. XEDEA

Lankidetzeta hitzarmena sinatu duten udalerrietan erroldatutako 18 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzenduriko inguruko enpresa Lanekoak ez diren praktikak egiteko programaren oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzea. Enpresa, lan profesionalak burutzeko kontratazioa ahalmena duen edozein erakunde bezala ulertzen da.

20  
18

**UK GAZTEA  
BEKAK**  
LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKAK  
PRÁCTICAS NO LABORALES



#### 4. HARTZAILEAK

**Beken onuradunak** izateko bete beharreko baldintzak:

- 18-25 urte izatea eskabidea aurkeztean.
- Edo, 26-29 urte izatea eskabidea aurkeztean, betiere Gazteen Berme Sistematan altan emanda egotea.
- Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera "Gaztedi Uribe Kosta" hitzarmena sinatu duten udalerrietako batetan erroldatuta egotea (Barrika, Berango, Gorliz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz).
- Lanbide-heziketako titulua izatea (erdi-mailako edo goi-mailako), edo goi mailako titulazioa ikaskuntza artistikoetan edo kirol arlokoetan izatea, edo unibertsitateko titulua edo profesionaltasun ziurtagiria edukitzea.
- Gazteen Berme Sistematan izena emanda egotea, hala badagokio.
- Prestakuntzarekin lotura zuzena duten hiru hilabetetik gorako lan-erperientziarik ez edukitzea.
- Enplegu gabe egotea eta Lanbiden lan eskatzaile gisa agertzea.
- Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galduta Zigor edo administrazio arloko zehapenik ez izatea eta horretarako ezgaitzen duten lege debekatuen sartuta ez egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuagatiko bereizkeria gauzatzeagatik gertatu direnak barne.

Programan parte hartuko duten **enpresek/erakunde onuradunek** bete beharreko baldintzak:

- Legez eratuta egotea eta egoitza soziala edo lantokia Bizkaian izatea.
- Enpresa eskatzaileek egunean izan beharko dituzte Leioako Udalarekiko zein Administrazio Publikoarekiko zerga betebeharrak, baita Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere, diru-laguntza eskabidea aurkezteko datan.
- Bekaren onuraduna gizarte segurantzatan altan ematea Lanekoak ez diren praktiken epigrafean.
- Programak dirauen bitartean, Lanekoak ez diren praktikan dagoen gaztea tutorizatzeko gaitasuna duen langileria.
- Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galduta Zigor edo administrazio arloko zehapenik ez izatea eta horretarako ezgaitzen duten lege debekatuen sartuta ez egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako

20  
18

**UK GAZTEA  
BEKAK**  
LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKAK  
PRÁCTICAS NO LABORALES



otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuagatiko bereizkeria gauzatzeagatik gertatu direnak barne.

## 5. EDUKIAK

Deialdian araututako diru laguntzek gazteei inguruko enpresetan lanekoak ez diren praktiken bitartez, lan munduarekin, ordaindutako eta gainbegiratutako, lehen kontaktua erraztea du helburu.

- Praktikaldiaren iraupena: 6 hilabete.
- Lanaldia: 30 ordu astean.
- Bekaren zenbateko 500 €/hilerokoa izan da ondoko kontzeptuei aurre egiteko erabiliko dena:
  - Bekadunak jasoko duen zenbatekoa.
  - Gizarte segurantzaren kotizazio gastuen ordainketa lanekoak ez diren praktikei dagozkiona, 9923 epigrafea.
- Programa honetan parte hartzen duten enpresek, eskaera orrian bekadunak bete beharreko funtzio eta zereginak zehaztu beharko ditu horien edukiak eta bekadunaren perfilak bat datozela bermatze aldera.
- Praktikak enpresaren lantokian egingo dira, enpresak berak izendatutako tutore baten zuzendaritzapean eta ikuskaritzapean, halaber, praktikaldia bukatutakoan, bera izango da praktiken azken oroitza-txostenaren egitearen arduraduna.
- Behin praktikaldia bukatutakoan, gazteek ziurtagiri bat jasoko dute (Lanbidek emana), non praktiken iraupena eta prestakuntzaren edukiak azalduko diren.
- Bekaren onuradunak enpresak proposatutako ekintzak burutzeko, enpresak emandako arauak edo jarraibideak bete beharko ditu. Ondoren azaldukoak gertatuko balira, praktikaldia bukatutzat eman ahal delarik:
  - Ageriko arduragabetasunez aritzean.
  - Jasotako jarraibide edo aginduei muzin egitean.
  - Lantokiarekin bat ez datozen jokaerak edukitakoan.

## 6. BEKA KOPURUA, ZENBATEKOA, ORDAINKETEN KUDEAKETA.

Lanekoak ez diren praktikak egiteko beken oinarrietan adierazitako betebeharrak betetzen dituzten pertsonen artean, emango diren beken kopurua, gehienez 15ekoa izango da. Beka bakoitzak gehienez, 6 hilabeteko iraupena izango du. Beka bakoitzaren zenbatekoa 500 €/hileko izango da, bertan bekadunak jasoko duen diru-laguntzaren zenbatekoa eta horren gizarte segurantzaren kotizazioa (dagokion epigrafean) barneratuta daudelarik.

Enpresak behin arestian aipatutako ordainketen ziurtagiria igorritakoan, hileroko bekaren zenbatekoari dagokion diru sarrera jasoko du. Diru sarrera horren ordainketa jasotzea ahalbidetzeko Hirugarrenen datuen fitxa dagozkion datuekin beteta aurkeztu beharko du.

## 7. ESKABIDEEN AURKEZPENA ETA EPEAK

1.- Esakerak eskatutako dokumentazioarekin batera, nagusiki Behargintza Leioaren webgunearen bitartez bideratuko dira [www.behargintzaleioa.net](http://www.behargintzaleioa.net)

2.- Halaber, eskabideak aurrez aurre aurkeztu daitezke Leioako udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (Udaletxea edo Gaztelubide), edo Behargintza Leioan (Mendibil kalea 3, 48940 Leioa). Azkenik, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena arautzen duen legearen 16.4 artikulua aurre ikusten dituen aurkezpen bideen bitartez ere bideratu ahal izango dira eskabideak.

3.- Diru-laguntzen eskabideak, honako deialdia eta oinarri arautzaileak BAOan argitaratzen diren egunetik 2019ko urtarrilaren 31ra arte aurkeztua ahal izango dira, betiere, data hori baino lehen eskaintako beka guztiak esleituak ez baldin badaude.

4.- Hautagai guztiak betebeharreko ezaugarriak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute ondoren adierazitako agiriak entregatuz:

- Eskabide orria behar bezala beteta. (Webgunearekin lotura...)
- NANaren fotokopia edo, kasuan kasuko besteren kontura lan egiteko gaitasuna duelaren egiaztagiria.
- Errolda agiria, Leioaztarren kasuan salbu, ofizioz ziurtatuko delarik.

- Eskadidea bideratzekoan, lan gabezia eta Lanbiden-Euskal Enplegu Zerbitzua lan eskatzaile gisa egotearen egiaztagiria.
- Lanbideren Kurrikuluma behar bezala eguneratua.
- Lan bizitza txostena behar bezala eguneratua.

4.- Programa parte hartu nahi duten enpresek/erakundeek ondoko agiriak entregatu beharko dituzte:

- Lanekoak ez diren praktketan parte hartzeko "HAUTAGAI ESKAERA ORRIA" behar bezala beteta.
- Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia edo, autonomia izanez gero NAN-aren fotokopia.

## 8. EMAKIDA-PROZEDURA

Eskaeren **kudeaketa** lehia librean egokituko dira betiere, bekaren onuradunaren perfilarekin bat datozen enpresak programan parte hartzen duten heinean.

Beken **izapidetzea** Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuak "Lanekoak ez diren praktikak" burutzeko ezartzen dituenak jarraituko dira.

Behin, Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Behargintzak hautagaiek bete beharreko guztiak betetzen dituztela ziurtatuta, azken **hautaketa** enpresak berak egingo du. Ondoren, Lanbide eta enpresaren arteko hitzarmenaren izenpetzea gauzatuko da.

## 9. BEKEN ONURADUNEN ETA ENPRESEN BETEBEHARRAK

- Bekak esleitzeko kontutan hartu direnetan aldaketaren bat gertatutakoan Behargintza Leioan horren berri eman.
- Beken garapenean eragina izan dezakeen gertakizunen bat emandakoan Behargintza Leioan horren berri eman.

Enpresen betebeharrak zehatzak:

- Deialdian eskatutako dokumentazio guztia behar bezala betetzea eta aurkeztea.
- Bekadunari dagokion zenbatekoa eta gizarte segurantzari dagokiona alde aurretik ordaintzea
- Praktikaldiak dirauen bitartean, bekadunaren egitekoen jarraipena egin eta laguntza eman.

20  
18

**UK GAZTEA  
BEKAK**  
LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKAK  
PRÁCTICAS NO LABORALES



Bekadunen betebeharrak zehatzak:

- Deialdian eskatutako dokumentazio guztia behar bezala betetzea eta aurkeztea.
- Lanbidek eta enpresak izenpetutako hitzarmenean jasotako betebeharrak eta ordutegiak betetzea.

## 10. BATERAGARRITASUNA

Diru laguntza hau, iragarritako edo iragartzear dagoen beste diru-laguntzekin bateragarria izan daiteke, betiere jasotako diru-laguntza guzti horien kopuruak eskatutako ekintzaren aurrekontua gainditzen ez baldin badu. Kasu horretan, diru-laguntzaren zenbateko murriztuko litzateke gain finantziario hori ekiditeko edo/eta kantitate hori itzultzea eskatuko litzateke.

## 11. DATU PERTSONALEN BABESA

Leioako Udalak, Datuak Babesteko Erreglamendu Orokorrak dioena betez, erakunde eskatzaileen datu pertsonalek trataera automatizatua izan dezaketela eta Leioako Informazio Sistemak sartuko direla informatzen du. Aipatutako datuak udal kudeaketarako soilik erabili ahal izango dira, beroriek laga edo jakinarazi ahal izango dira beste Herri Administrazioei. Interesatuak datuak ikusi, zuzendu, ezabatu eta horiei aurka egiteko legez aurre-ikusten diren eskubideak erabili ahal izango dituzte Leioako Udalaren informazio eta erregistro zerbitzuaren bitartez.

## 12. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Deialdian aurre ikusitako diru laguntzak Leioako Udalak 2018rako onartutako aurrekontuetan barneratutako ondoko partidaren karguan "00900/33701/2260650; GAZTEAK 2017-2019 jasoko dira, guztira 45.000 eurotako zenbatekoarekin.

20  
18

**UK GAZTEA  
BEKAK**  
LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKAK  
PRÁCTICAS NO LABORALES

